

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Alemanian egindako Erasmus+BOQua proiektuaren itxieran parte hartu du Nafarroak

Orientatzaile profesionalen gaitasunak zehaztu dituzte bi urteko proiektuan

Asteartea, 2018.eko uztailak 17

Alemania Schwäbisch Gmünd hirian egin da Erasmus+BOQua proiektuaren itxiera ekitaldia eta han izan dira Nafarroako, Alemaniako, Austriako, Galesko eta Esloveniako proiektu-kideak. Hezkuntza departamentuko Lanbide Heziketa zerbitzuko kideek parte hartu dute biltzarrean, uztailaren 16an eta 17an.



Nafarroako LH zerbitzuko kideak proiektuaren itxieran izandako gainerako kideekin.

Europako hainbat herrialderen artean garatutako proiektuari itxiera emateko ekitaldia izan da bi egunez Alemanian egindakoa. Erasmus+BOQua proiektuaren bi helburu nagusiak betetzeko balio izan du: bi urtez egindako lana eta Europako eremuan lan-orientatzaile nahiz orientatzaile profesionalaren kualifikazio profesionala ezartzeko proposamenak balioztatzea.

Herrialde parte-hartzaile guztiek, Alemaniak, Austriak, Galesek, Esloveniak eta Nafarroak, modu oso positiboan baloratu dute orientatzaile profesionalaren gaitasunak zehaztu izana, eta bat egin dute guztiek gaitasun horiek egiaztatzeko agiri ofiziala sortzeko egitasmoarekin. Nafarroako Lanbide Heziketako zuzendari Esther Monterrubioaren iritziz, “bazkide guztiek bat egin dute figura profesional horren beharra azpimarratzeko orduan eta beharrezko ikusi dute, modu transbertsalean, orientatzaile profesionalaren elementuak gehitzea hainbat perfil profesionalean trebakuntza goiztiarretik bertatik eta bizitza osoan zehar lan egin dezaten. Esaterako, DBH eta Batxilergoan, bai tutoreek bai zuzendaritza talde-kideek, baita enpresa eta hirugarren sektoreko profesionalen arduradunek ere”. Trebakuntza hori modu malguan, modulatuan eta urrutiko trebakuntza plataformetan oinarrituta antolatu beharko litzatekeela adierazi dute Nafarroako ordezkariak.

Herrialde guztiek bat egin dute Europako herrialdeetan dauden bi arazo nagusiri erantzuteko orientazio profesionaletik irtenbideak bilatzeko premia dagoela: eskola uztea, batetik, eta ekoizpen sektoreen beharren eta gazteek lanbide heziketa ikasketez egiten duten eskariaren arteko

desegokitasuna, bestetik.

Hain justu, proiektuaren produktu etako bat izan da “Praktika onen gida”, Europako orientatzaile profesionalen ari diren agenteentzako neurri garrantzitsuak eskaintzeko. Proiektuko bazkideek egindako proposamenen bilduma dira biltzen diren neurriak eta bost herrialde parte-hartzaileetan testatu dira. Zehazki, Nafarroak ekonomia berdean aritzen den sektorearentzako orientazio profesionalaren garapena hartu du beregain eta gauzatutako ekintza azpimarragarrienen artean legoke formazio ikastaro baten diseinua eta garapena, Nafar Lansareko eta Hezkuntza departamentuko orientatzaile talde batekin.

Alemaniko itxiera-ekitaldian proiektuaren emaitzak aurkezteko konferentzia ere egin dute orientazio profesionaleko eskualdeetako eta Europako adituekin, hezkuntza erakundeek, orientatzaile profesionalak, trebakuntza enpresek eta agente ekonomiko-sozialek lortutako produktuak balioztatu eta hauen erabilera ziurtatzeko. Konferentzian lanbide heziketako hainbat erregioetako kideek parte hartu dute. Ekitaldia Suabia eskualdeko Schwäbisch Gmünd hiriko alkateak ireki du.

Joan zen [martxoan Nafarroan egin](#) zen Erasmus+BOQua proiektuko bileratako bat, eta han zehaztu ziren proiektuaren kalitate eredian urratsak emateko irizpideak eta tresnaren balorazioa, besteak beste.



Proiektuaren koordinatzailea parte hartzaileak aurkeztuz.